

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 3379

*EBAZPENA, 2024ko uztailaren 3koa, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, beken deialdia egiteko dena 2024-2025 aldian gazteak Europar Batasunaren eta Kanpo Harremanen eremuan prestatzeko.*

Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuak arautzen ditu Europar Batasunaren eta Kanpo Harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekek (2019ko otsailaren 1eko EHAA, 23. zk.).

Aipatutako dekretuaren 5.1 artikuluari jarraituz, beken deialdia egiten da 2024-2025 aldian gazteak Europar Batasunaren eta Kanpo Harremanen eremuan prestatzeko. Beka horiek Lehendakaritzaren 2024-2027 aldirako Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategikoaren barruan sartuta daude (Koordinazio eta Gizarte-komunikazioko idazkari nagusiaren 2024ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez onartu zen plan hori), eta helbide honetan argitaratuta: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/proiektua/lehendakaritzaren-2024eko-diru-laguntzen-plan-estrategikoa/>

Iragarritako bekek lagundu egiten dute Kanpo Ekintzaren eremuan gazteen prestakuntza bultzatzen, eta adimen lehiakorra eta nazioartekotzearen arloko ezagutza sustatzen dute. Hain zuzen ere, nazioartekotzea da Lehendakaritzaren 2024-2027 aldirako Dirulaguntzen Lau Urteko Plan Estrategikoaren helburu estrategikoetako bat.

Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Hamalau beka emateko deialdia iragartzea, 2024-2025 aldian Kanpo Harremanen eremuan gazteen prestakuntza bultzatzeko, hiru beka-modalitatetan: Europar Batasuna, Kanpoan den Euskal Komunitatea eta Kanpo Harremanak.

Hauetan xedatutakoak izango dira deialdi hau arautuko dutenak: kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekek arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretua (2019ko otsailaren 1eko EHAA, 23. zk.) eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek bukaera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa jar dakiok ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoari jarraituz.

2024ko uztailearen 11, osteguna

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA**

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Guztiek jakin dezaten, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean ere argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailearen 3a.

Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,  
MARIA ÁNGELES ELORZA ZUBIRIA.

2024ko uztailaren 11, osteguna

## I. ERANSKINA

EBAZPENA, 2024KO UZTAILAREN 3KOA, EUROPAR BATASUNEN ETA KANPO HARREMANETAKO IDAZKARI NAGUSIARENA, BEKEN DEIALDIA EGITEKO DENA 2024-2025 ALDIAN GAZTEAK EUROPAR BATASUNAREN ETA KANPO HARREMANEN EREMUAN PRESTATZEKO.

## OINARRIAK

Lehenengoa.– Xedea.

Deialdi honen xedea da hamalau beka emateko deialdia egitea, 2024-2025 aldiari Europar Batasunaren eta Kanpo Harremanen eremuan gazteen prestakuntza bultzatzeko.

Bigarrena.– Beka-modalitatea eta -kopurua.

1– Modalitate hauetako beken deialdia egiten da:

- Europar Batasuna: sei beka
- Kanpoan den Euskal Komunitatea: lau beka
- Kanpo-harremanak: lau beka

2– Eskatzaile bakoitza deitutako beka-modalitate bakar batera aurkeztu ahal izango da.

Hirugarrena.– Onuradunak.

Beken onuradun izan ahal izango dira Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten pertsonak.

Aitzitik, dekretu horren 2.e) artikuluko eskakizunari dagokionez, ezin izango dira beka hauen onuradun izan Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenak, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuan xedatutakoari jarraituz.

Laugarrena.– Eskabideak, eta eskakizunak egiaztatzea.

Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraituz egingo dira eskabideak eta egiaztatuko da eskatutako dokumentazioa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, eskabidea egiteko unean, deialdi-ebazpenean ezartzen den eredu normalizatuaren parte izango den erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, eskatzaileak adieraziko du, dekretu horren 8.5 artikuluan a) eta b) apartatuetan xedatutakoaz gain, ez duela dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen penalik nahiz administratiborik, eta ez duela

2024ko uztailaren 11, osteguna

horretarako desgaitzen duen lege-debekurik, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuan xedatutakoari jarraituz.

Bosgarrena.– Beken destinoak.

1– Europar Batasuneko beken onuradunek destino hauetan gauzatuko dute beren jarduna:

– Bi beka Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.

– Bi beka Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzan, Bruselan.

– Bi beka Euskadiren Frantziako Ordezkaritzan, Parisen.

2– Kanpoan den Euskal Komunitateko beken onuradunek destino hauetan gauzatuko dute beren jarduna:

– Bi beka Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.

– Beka bat Euskadiren Argentinako Ordezkaritzan (Mercosur), Buenos Airesen.

– Beka bat Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan, New Yorken.

3– Kanpo Harremanetako beken onuradunek destino hauetan gauzatuko dute beren jarduna:

– Bi beka Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.

– Bi beka Euskadiren Txile, Peru eta Kolonbiako Ordezkaritzan, bata Santiagon eta bestea Bogotan.

Seigarrena.– Diru-zuzkidura eta ordainketa.

1.– Iragarri den beka-programaren kreditu osoa 288.000 eurokoa da; horietatik 144.000 euro 2024ko ordainketa-kredituei dagozkie, eta 144.000 euro 2025eko konpromiso-kredituei.

2.– Hau izango da beken diru-zuzkidura:

– 16.000 euro gordin destinoa Vitoria-Gasteizen duen beka bakoitzeko.

– 24.000 euro gordin destinoa Euskadiren kanpoko ordezkartzaren batean duen beka bakoitzeko.

3.– Dirulaguntza hiru alditan ordainduko da:

– Lehenengo ordainketa: beka onartu eta gero egingo da, eta esleitutako laguntzaren % 50 emango da (2024).

– Bigarren ordainketa: bekaz gozatzen hasi eta lau hilabetera egingo da, eta esleitutako laguntzaren % 20 emango da (2025).

2024ko uztailaren 11, osteguna

– Hirugarren ordainketa (azkena): gainerako % 30a, beka bukatu eta gero egingo da, bekadunek bukaerako txostenak aurkeztu ondoren eta kasu bakoitzean dagokion zuzendaritzak bekadunaren aprobetxamenduari buruz emandako aldeko txosten jaso ondoren (2025).

4.– Jasotako zenbatekoak zergei buruzko araudia aplikatuta legokiokeen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) eta Gizarte Segurantzaren araubidearen mende egongo dira.

5.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 23. artikuluan xedatutakoari jarraituz, ezingo da eman oinarri honetan ezarritako zenbateko osoa baino gehiagoko dirulaguntzarik.

Zazpigarrena.– Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea.

1.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuan eskatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak aurrez aurre edo bide elektronikoak erabiliz eskatu, kontsultatu eta egin ahal izango dituzte prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa telematikoki izapidetzeko zehaztapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0073108>

3.– Eskaera egiteko, behar bezala bete beharko da Euskadiko Administrazio Autonomoaren egoitza elektronikoan, helbide honetan, eskuragarri dagoen eskabide-orri normalizatua: <https://www.euskadi.eus/servicios/0073109>

Eskabideak identifikatzeko eta sinatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartutako bitartekoak erabili behar dira; helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

4.– Izapide elektronikoak ordezkari baten bidez egin ahal izango ditu eskatzaileak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ahalordeen Erregistroan inskribatu beharko da ordezkari hori, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarikak>.

5.– Eskabidearen ondorengo izapideak bide elektronikoz egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez. Helbidea: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzak horretarako duen datu-basean agertu beharko du onuradunak.

Alta emateko edo hirugarrenaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenaren erregistro elektronikora jo beharko du interesdunak. Helbidea: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/>

Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/web01-sede/eu/>

6.– Eskabideak aurrez aurre aurkeztea aukeratuz gero, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen inprimaki-eredua bete beharko dute interesdunek; hemen dago: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0073108>

2024ko uztailaren 11, osteguna

Posta-helbide honetara bidali beharko dira eskabideak, zein beka-modalitatetara aurkeztu nahi den adierazita:

Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusia.

Lehendakaritza – Eusko Jaurlaritza.

Nafarroa kalea 2 - 01007 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Eskabideak, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusian ez ezik, Euskadiren kanpoko ordezkarietan eta Zuzenean Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Arreta bulegoetan ere aurkeztu ahal izango dira. Zuzenean bulegoetan aurkezteko, hitzordua eskatu beharko da aldez aurretik <https://www.euskadi.eus/zuzenean-aurrez-aurreko-arreta/web01-a2zuzen/eu/helbidean,edo,bestela,aldezaurreko-hitzorduak-eskatzeko-edo-ezeztatzeko-945-01-90-00-berariazko-telefono-zenbakira-hots-eginda>. Azkenik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako ezein modutan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

7.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zortzigarrena.– Hautaketa Batzordea.

1.– Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 11. artikuluan ezarritako betebeharrak beteko ditu Hautaketa Batzordeak.

Dena den, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikuluan xedatutakoari jarraituz, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izateko ahalegina egingo da Hautaketa Batzordeko kideak izendatzean.

2. – Hautaketa Batzordeak baloratuko ditu beka-modalitate bakoitzeko merezimenduak. Pertsona hauek osatuko dute batzorde hori:

– Concepción Quintana Aguirre, Kanpo Harremanen zuzendaria; batzordeburua izango da. Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Estibaliz Urcelay Erguido Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak ordeztuko du.

– Mikel Anton Zarragoitia, Europar Batasunerako zuzendaria. Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Eloísa Susaeta Azcoitia Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak ordeztuko du.

– Gorka Álvarez Aramburu, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaria. Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, José Manuel Meaurio Antón Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak ordeztuko du.

– Ainara Jauregi Rekondo, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikaria. Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Eloísa Susaeta Azcoitia Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak ordeztuko du.

2024ko uztailaren 11, osteguna

– Benan Oregi Iñurrieta, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikaria. Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Ibon Mendibelzua Madariaga Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak ordeztuko du.

– Elena Iturrate Vizcargüenaga, Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikaria; idazkari-lanak egingo ditu Hautaketa Batzordean. Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Loreto Guzmán Fonquernie Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak ordeztuko du.

2.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 11.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, Hautaketa Batzordeak Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiko aholkulari baten aholkularitza izango du. Aholkulari horrek hitza izango du, baina botorik ez.

Bederatzigarrena.– Balorazio-irizpideak.

1.– Beka-modalitate guztietarako balorazio-irizpideak Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoak dira.

2.– Dekretu horren 12.1.d) artikuluan, gehienez 15 punturekin baloratuko da ingelesaren ahozko eta idatzizko ezagutza-maila, 80/2019 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz (80/2019 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen duena, irakaskuntza horietako oinarrizko A1 mailaren, oinarrizko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarekin batera).

3.– Dekretu arautzailearen 12.1.e) artikuluan, gehienez 10 punturekin baloratuko da atzerriko beste hizkuntzen ahozko eta idatzizko ezagutza-maila, baldin eta B1, B2 edo goragoko mailako ezagutzak egiaztatzen badituzte, 80/2019 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz (80/2019 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena xedatzen duena, irakaskuntza horietako oinarrizko A1 mailaren, oinarrizko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarekin batera).

4.– Aipatutako 12.2 artikuluan xedatzen denez, aurreko irizpideak baloratzeko, egoki iritzitako probak egin ahal izango ditu Hautaketa Batzordeak.

Hamargarrena.– Probaren modalitateak.

1.– Izangaiek idatzizko proba bat egingo dute: 15 galderako test bat, aukeratzen duten beka-modalitatera egokitua. 30 minutu izango dituzte proba egiteko. Galdera guztiek puntuazio bera izango dute, eta 15 puntu emango dira gehienez, honela banatuta:

a) Europar Batasuna modalitatea:

- 5 galdera Europar Batasuneko erakunde-esparruari buruz.
- 5 galdera Europako gaurkotasun politikoari buruz.
- 5 galdera Europako gaurkotasun ekonomikoari buruz.

2024ko uztailaren 11, osteguna

b) Kanpoan den Euskal Komunitatea modalitatea:

- 5 galdera euskal etxeen esparruari buruz.
- 5 galdera euskal emigrazioaren memoria historikoari buruz.
- 5 galdera euskal diasporarako erakunde-programei buruz.

c) Kanpo-harremanak modalitatea:

- 5 galdera erakunde multilateralei buruz.
- 5 galdera nazioarteko gaurkotasun politikoari buruz. Ez da Europari buruzko galderarik egingo.
- 5 galdera nazioarteko gaurkotasun ekonomikoari buruz. Ez da Europari buruzko galderarik egingo.

Hamaikagarrena.– Bekadunen betebeharrak.

1.– Bekadunek Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 16. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

2.– Halaber, aipatutako dekretuaren 16.2.n) artikuluan jasotako betebeharrari dagokionez, beken onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. eta 42. artikuluetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Hamabigarrena.– Txostenak.

1.– Bekadunek lehen txosten partzial bat aurkeztu beharko dute bigarren ordainketa jaso baino lehen. Txosten horretan, alderdi hauek zehaztu beharko dituzte: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Estatuko Administrazio Orokorraren arteko harremanei buruz jasotako prestakuntza; Euskal Autonomia Erkidegoak Nazioartekotzeko Esparru Estrategian –Basque Country 2025. Kanpo Ekintzako Plana 2025– jasotako lehentasunezko eskualdeekin eta herrialdeekin nahiz Euskadiren kanpoko ordezkariak dauden herrialdeekin dituen harremanei buruz jasotako prestakuntza.

2.– Bekadunek bigarren txosten partzial bat aurkeztu beharko dute, bekaren hirugarren eta azken ordainketak egin baino lehen. Txosten horretan, alderdi hauek jasoko dituzte: Euskal Autonomia Erkidegoaren parte-hartzea Europako erakunde eta organismoetan, mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzan eta organismo multilateraletan.

3.– Ikerketa-lana beka bukatu baino lehen aurkeztu beharko da. Ikerketa-lana garatutako beka-modalitateari buruzko gairen bati buruzkoa izango da. Lana hogeita bost orri luze izango da gehienez.

Hamabigarrena.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituen urtarrilaren 29ko 15/2019 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoari jarraituz, dekretu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea dagokio beken modalitate bakoitzeko eremu bakoitzean eskumena duen zuzendaritzari. Ondorio horietarako, zuzendaritza horrek bekadunaren jarduerak gainbegiratuko eta zuzenduko ditu.



Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. artikuluan xedatutakoari jarraituz, kudeaketa-organoak, Hautaketa Batzordearen espedienteak eta txostena aintzat hartuta, dagozkion ebazpen-proposamenak emango ditu, eta dagozkion organoari emango, hark ebatz ditzan.

Hamahirugarrena.– Ebazpena.

1.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22. artikuluan xedatutakoari jarraituz, behin betiko ebazpena onartu eta gero, organo eskudunak ebatziko du prozedura.

2.– Bekak Arautzeko Dekretuaren 14. artikuluari jarraituz, dagozkion esleipen-ebazpena Kanpo Harremanen eremuan eskumenak dituen idazkaritza nagusiaren edo sailburuordetzaren titularrak emango du, instrukzio-organoek egindako behin betiko ebazpen-proposamenak kontuan hartuta. Administrazio-bideari bukaera emango dion ebazpen horretan zioak adieraziko dira, eta hiru beka-modalitateen onuradunak izendatuko dira, destinoak, hasiera-data eta, hala badagokio, beka-modalitate bakoitzeko haien ordezkioak adierazita. Orobat, baldintzak betetzen dituen hautagairik ez badago, beka esleitu gabe geratzen direla adieraziko da ebazpenean.

3.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22. artikuluan eta Bekak Arautzeko Dekretuaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz, ebazpen hori eman eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, denek jakin dezaten, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) helbidean, dagozkion urteko deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik gehienez sei hilabeteko epean.

Epe hori igarota, ebazpenik argitaratu ez bada, eskabideak atzera bota direla ulertuko da.

4.– Esleipen-ebazpenak bukaera ematen dio administrazio-bideari. Ebazpenaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hileko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hamalagarrena.– Ez-betetzeen ondorioz beka baliogabetzea.

Egiaztatzen bada beka ematea ekarri zuten baldintzak ez direla bete, baliogabetu egingo da beka, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean ezarritako baldintzekin bat etorriz.

Zehatzago esanda, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 2020/2023 Legearen 36. artikuluan jasotzen diren gertakariak eta egoerek dirua itzuli beharra ekarriko dute.

2024ko uztailearen 11, osteguna

## II. ERANSKINA

## ESKABIDE-EREDUA

Izen-abizenak: .....

NANA/pasaporteak: .....

Helbidea: .....

Posta elektronikoa: .....

– Ofizialki onartutako euskal etxeetako bazkideen kasuan:

Euskal etxearen identifikazioa: .....

Euskal etxeko bazkide-zk.: .....

– Beka-modalitatea (beka-modalitate bakar batera aurkeztu ahal izango da):

 Europar Batasuna Kanpoan den Euskal Komunitatea Kanpo Harremanak

– Zein destinatora aurkezten den:

1) Europar Batasuna beka-modalitatera:

 Vitoria-Gasteiz Brusela, Belgika Paris, Frantzia

2) Kanpoan den Euskal Komunitatea beka-modalitatera:

 Vitoria-Gasteiz Buenos Aires, Argentina New York, Estatu Batuak

3) Kanpo Harremanak beka-modalitatera:

 Vitoria-Gasteiz Santiago, Txile Bogota, Kolonbia

– Goi-mailako edo graduko unibertsitate-titulua: .....

– Ikastaroak (gutxienez 50 ordukoak): .....

2024ko uztailaren 11, osteguna

– Hizkuntzak.

Euskara: (\*)

Egiaztatutako maila:  B2  C1  C2

(\*) Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Euskarako B1 mailaren baliokidetzat jotzen diren euskarazko hizkuntza-tituluak eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuetsita egongo dira 47/2012 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa betetzen dutenak (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzekoa eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuestekoa).

Ingelesa:

Egiaztatutako maila:  B1  B2  C1  C2

Beste hizkuntza batzuk:

Egiaztatutako maila:  B1  B2  C1  C2

## III. ERANSKINA

## ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- NANA edo pasaporteak.
- Errolda-ziurtagiria, 2024ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dela egiaztatzen duena / Euskal etxearen ziurtagiria, 2024ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik bazkide dela egiaztatzen duena.
- Goi-mailako edo graduko unibertsitate-titulua eta, hala badagokio, dagokion homologazioa.
- Curriculum vitae, espediente akademikoa erantsita.
- Egindako ikasketen ziurtagiriak. Ikasketek ofizialak eta balio akademikodunak izan beharko dute.
- Hizkuntzen ziurtagiriak. Ziurtagiriek ofizialak eta balio akademikodunak izan behar dute.
- Medikuziurtagiria, egitekoak eta betebeharrak ongi betetzea galarazten dion gaixotasunik ez duela zehazten duena.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, beka-modalitate bakoitzari dagokion instrukzio-organoak kontsultatu edo eskatu ahal izango du Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 8.3.a), b), c) eta e) artikuluetan adierazitako dokumentazioa, dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bitartez.

2024ko uztailaren 11, osteguna

## IV. ERANSKINA

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

..... jaunak/andreak

## HAUEK ADIERAZTEN DITU:

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraituz (agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da), zenbait kasutan, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla egiaztatzeko ziurtagirien ordez.

Halaber, agindu horren 7. artikuluari jarraituz, dirulaguntzak itzultzeko betebeharra bete dela egiaztatzeko, pertsona edo entitate eskatzaile edo onuradunak edo entitate kolaboratzaileak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko du kasu bakoitzean.

– Egunean ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, ebazpen honetan adierazitako moduan, eta konpromisoa hartzen du betebeharrak horri eusteko, harik eta emandako laguntza edo dirulaguntza osoa justifikatu arte.

Aurreko apartatuan adierazitakoa gorabehera, organo emaileak egiaztatu ahal izango du betebeharrak horiek betetzen direla.

– Egunean ditu dirulaguntzen itzultzetaren ondoriozko betebeharrak.

– Aurretik ez ditu jaso beka hauek edo unibertsitate-tituludunei bideratutako beste prestakuntza-beka batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretatik.

– Ez dago Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako onuradun izatea galarazten dion egoeraren batean.

– Ez du dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen penalik nahiz administratiborik, eta ez du horretarako desgaitzen duen lege-debekurik, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoari jarraituz.

Lekua eta eguna

Sinadura

## V. ERANSKINA

## DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Behar bezala betetzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (Datu Babeserako Erregelamendu Orokorra) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, jakinarazten da datu pertsonalak tratamendu-jarduera honetan sartuko direla: «Kanpo-harremanen eremuko prestakuntza-bekak».

Arduraduna: Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusia, Lehendakaritza.

Helburua: Kanpo Harremanen eremuko beka-deialdietan parte hartzen dutenen informazio pertsonala kudeatzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion ahalorde publikoak egikaritzeko.

– Tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko.

Hartzaileak:

Ogasun Publikoa.

Gizarte Segurantzako organismoak.

Eskubideak: datuak irispidean izatea, zuzentzea eta ezereztea, eta informazio gehigarrian jasotako beste zenbait eskubide.

Informazio osagarria. Gure webgunean kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio osagarri eta zehatz guztia: <http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842>

<https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-tramite/eu/>

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra  
(<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>) eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa  
(<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2018-1667>)

....., 20...(e)ko .....ren .....(a).

Eskatzailearen edo ordezkariaren sinadura